

KIKE MORA

Jazz Project

Kike Mora musikariak (Barakaldo, 1975) izugarrizko eskarmendua du musikaren bidezidorretan zein biderik nagusienetan. Musikaren atal desberdinak jorratu ditu bere musika ibilbide luzean. Hainbat proiektutan hartu du parte, bere jakinduria eta esperientzia kolektibizatu eta sozializatuz. Euskal Herrian argitaratu diren disko askotan irakur daiteke Kike Mora musikariaren izena eta taula gainean hainbat talderen ekimenak bultzatzen ikusi dugu. Kike Mora, besteak beste, ondoko taldeetan egon da eta zerrenda ez da laburra, hemen esanguratsuenak: Rabia, Beer Mosh, Urgabe, Ainhoa Cantalapiedra, Kepa Junkera, Korrontzi... Kike Mora musikariaren jarduna beste alor batzuetan ere egokitu da: sortzailea, soinu teknikari, ekoizle, nahasketa egile Euskal Herriko talde andanarekin. Lan egin du segidan doazen taldeekin: Des-Kontrol, Basaki, Urgabe, Kalte, Línea 2, Amaiur, Korrontzi... Donostiako Musikene Goi Mailako Ikastegian lizentziatu zen jazz-baxua sailean eta musika tresna hori miresten du eta berari eskaini dizkio ordu gordinenak.

Kike Mora musikariaren bakarkako lehen lana da "Jazz Project" diskoa eta Bilboko K.M.T estudioan grabatu eta nahastu du Kike Morak berak 2011ko otsailetik apirilera. Masterizazioa Cesar Ibarretxe soinu teknikariak egin du. Kike Morak diskorako Musikene Ikastegian kide izan dituen musikari asko ekarri ditu: Iker Uriarte (bateria, Betagarri), Juanma Urriza Boli (bateria, Sorkun), Ander Hurtado de Saratxo (perkusioa, Korrontzi), Juan Ortiz (rhodes, Cherry Boopers), Rafa Santana (pianoa), Mikel Romero (gitarra, Korrontzi), Alain David (saxo garaia, Traveling Brothers), Julen Izarra (saxo tenor eta sopranoa, Acido C, Mauri Sanchís).

Kike Mora musikariaren lehen diskoa "Jazz Project" da. Estreinako notatik jazzaren usaina dario. Baxua musika tresna nagusitzat hartuta, Kike Morak jazzaren bide zabalak aurkeztuko dizkigu. Bat-batekotasuna eta inprobisazioa antzeman daitezke baina alde zurratik ongi pentsatutako oinarriak daude. Diskoan jazz musikaren estilo desberdinei keinu egingo zaie. Denetarik aurki dezakegu, uztarketa edo fusioa abesti guztietan ageri da. Jazzaren sentsazio liluragarriak hizkuntzaren emozioetara garamatza. Espekulaziorik gabeko abestien aurrean gaude, jazzaren jokabide-eredua soinueta eta jazz tradizioaren zirrarako esperientziatar hurbilduko gaitu "Jazz Project" diskoak. Musika egituraketa jakinetan murgilduko gaitu Kike Mora musikariak. Funky kutsuko abestietan Marcus Miller musikariaren eta Headhunters taldearen itzala dago. Be Bop eta swing itxurako doinuak. Ambient trazako jazz, afrikar giroko doinuak, gitarra bezala jotako baxuaren zaratak. "Yesterday" abestiaren bertsio ikaragarria. Trebetasuna azalarazten da une orotan naturalitate sentsazioa inolaz ere galdu gabe. Intentsibitatea eta amodioa baxuaren amarruarekin.

Kike Mora Jazz Project Musikene Goi-Musika Ikastegiko ikasle ohi batzuen ekimena da, zergatik ikasle ohiaren batuketa?

Egia aitortzeko esan behar dut neure ekimena baino ez dela eta aurrera eramateko Musikene eskolako ikaskide ohiengana jo dut. Eskola honetatik pasatu ez diren beste jazz musikariak ez ditut baztertu nahi. Bilboko La Haceria eta Jarrock aretoetan egin ohi ditut jam saioak beste toki eta eskola batzuetako musikariekin. Ikaskideekin batzek bi arrazoi nagusi ditu. Bat. Bizipen franko izan dugu eta elkarrekin bizi izandakoak lau urtez ere badaude. Beraz, konzeptu musikal antzekoak ditugu eta errazagoa egiten da horrela lan egitea. Bi. Musikene goi mailako eskola denez, esan dezaket hortik ateratzen diren musikariak Euskal Herriko prestatuenak direla.

Kike Mora Jazz Project diskoak erakutsi nahi du musikariaren maila eta kantuen sorkuntza?

Hamar urtetik gora daramatzat artista desberdinei euren lanetan laguntzen eta neurea den zerbait egiteko beharra nuen. Kantuak eta musikariak ditut, diskoetxearen babesa, nahikoa aurrera egiteko ekimen berri honekin. Diskoarekin ez dut ezer frogatu nahi, nire musika egin nahi dut eta ahalik eta entzule kopuru handienarengana heldu (badakit ez dena izango erraza). Jazz Euskal Herrian? Eta baxua dela tresna nagusia? Zer da baxua? Gitarra bezalakoa da baina soka gutxiagorekin? Zorionez entzuleak beste estilo batzuk eskatzen ari dira. Azken urteetan herri zein hirietatik gero eta funky, fusio talde... gehiago sortuz doaz. Gure emanaldietan harrera hobea izaten ari gara eta horrek poztu baino ez nau egiten.

Kike Mora Jazz Project diskoak jazzaren bide anitzak jorratzen ditu. Nahiago aniztasuna estilo batean oinarritu baino?

Jazzak rock bezala hainbat azpiestilo ditu, artista eta garaiekin baita dago hori. Akatsa izango litzateke estilo bakar batera mugatzea hainbat iturritik edan daitekenean. Nik denetarik jo dut: heavy, punk, rock, folk, musika elektronikoa, jazz eta horrela erakutsi dut musika bere orokorrean maite dudala eta ez estilo bat bereziki. Disko hau jazzaren hizkuntzarekin egin dut baina ez du inolako eragozpenik ezta aurreritirik beste musika estiloekin uztartzeko.

ritxi aizpuru (2011ko ekainaren 23an)



Kike Mora: baxu elektrikoa, fretless baxua eta programazioak